A1157

ezagutzen al duzu Donostia?

Miraill

J. Salaberri («Mauletarra», goitizenez) doktoreak 1870. urtean argitaratu zuen «Chants Populaire du Pays Basque» liburu paregabean, beste abesti eder askoren artean ziberutar kanta polit hau agertzen da:

"Zü zira, zü, ekhiaren paria,
Liliaren floria,
eta *mirail* * ezinago garbia!
ikhusirik zure begithartia
Elizate posible, maitia,
Düdan pazentzia,
Hambat zirade
glorifikagarria!"

Argazkia: Oier Los Santos

«Mirail, Uliamendiko «ispilu» edo «miraila».

Badakigu gure ziberutar haurrideek erabiltzen dituzten hitz asko eta asko gaskoin-biarnes hizkuntzatik hartuak dituztela, guk donostiarrok bezalaxe, aspaldi erabiltzen baititugu hitz gaskoinak; hauek, batez ere, gure toponimian gelditu dira txertatuta. Horietako bat da *Mirail* Uliamendiko eguteraldeko baserria. *Mirail, Miraill, Miral, Miralles, Mirella, Miella, Miallas, Mirabillas, Miravalles* izen berdinaren aldakiak entzunak ditut (ikus nola doan desitxuratzen toponimo polit hau). Joan den mendeko etxe zerrendetan *Mirail, Miraill* eta *Mirall* agertzen da idatzietan; ingurukoak diren adineko pertsona euskaldunek Miralla deitzen diote. Erdaldunek, aldiz, azkena aipatutako aldakiak erabiltzen dituzte gaur egun. Gaur, *Mirail*, bi bizitzakoa bihurtutako etxea da, baina, aintzinan oso baserri dotore boteretsua izan behar zuen. Joan den mendeko mapa zaharretan etxe hau dagoen Uliamendiko alderdi hau «Monte Mirall» izenarekin agertzen da. Hor zegoen *Mirail* (eta gaur ere hor dago), agerian, bizkar baten gainean «Mirail» edo «ispilu» baten gisa eguneroko eguzki printzak isladatzen.

* *Mirail: ispilu*

JOSU TELLABIDE

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa fundazioa fundación

ZURE MUSIKA COMPACT DISC-EAN
3.500 pezeta (lehenengo kopia)
2.000 pezeta (bigarren kopiatik aurrera)
DAT, DCC, MD, Biniloa, Kasetea, 1/4eko Bobina, eta abarretatik egiten ditugu kopiak
Tfnoa.: (943) 42 17 22
Askatasunaren hiribidea 1 - 1º A1 - DONOSTIA
comunicación
COMPACT disc DIGITAL AUDIO

URKO
KALEFAKZIO
INSTALAKUNTZAK
Seriotasuna, kalitatea eta materialik onenak
Madril hiribidea 10 • Tfnoak.: 45.30.89 eta 909-42.69.54